



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

83. INFORMAZIO BULETINA

2013ko Azaroa



GIPUZKOA



NABARMENDU BEHARREKOA

> Europako Parlamentuak 2014-2020 Hainbat Urtetarako Finantza Markoa onartu du

Europako Parlamentuak azaroaren 19an onartu zuen Europar Batasuneko Hainbat Urtetarako Finantza Markoa 2014-2020 aldirako. Urtarrilaren 1ean hasi eta zazpi urteko iraupena izango duen ziklorako Europar Batasunerako onartutako guztizko aurrekontua 960.000 milioi eurokoa izango da konpromiso-kreditutan (gastuaren goiko muga), eta 908.000 milioi euro ordainketa-kreditutan (gastu eragingarria) 2011ko prezioen arabera.

Hori dela eta, aurrekontu-markoa % 3 gutxitu da 2007-2013 egungo aldiari dagokionez. Aurrekontu mailako jaitsiera handiena Kohesio eta Nekazaritza Politikara bideratutako kontusailek jasan dute; aldiz, handitu egin dira enplegura eta berrikuntzara bideratutako funtsak.

Kide diren estatuek egindako inposizioa dela eta, Euroganberak eskuragarri dauden baliabide horiek murriztu behar izan dituen arren, Bilkurak lortu du bi baldintza esanguratsu txertatzea: malgutasun handiagoa Europako funtsak esleitzeko garaian eta Marko hori 2016an berrikusteko klausula.

Bozketa horren ondoren, aurrekontua onartzeko prozesua amaitzeko izapidetze bakarra geratzen da: hurrengo asteotan Batzordeak modu formalean berretsi beharko du.

Informazio gehiago:

http://www.europarl.europa.eu/pdfs/news/expert/infopress/20131118IPR25541/20131118IPR25541_es.pdf



> **Gipuzkoa Euskal Autonomia Erkidegorako EGEF 2014-2020 Programa Operatibo berriaren programazio prozesuan parte hartzen ari da**

2014-2020 aldian Gipuzkoan egin beharreko jardueren programazioan urratsak emate aldera, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak, Udalentzako Laguntza eta Europako Funtsak atalaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegorako EGEF 2014-2020 Programa Operatibo berriaren txerta daitezkeen jarduerak aztertzeko, hautatzeko eta proposatzeko prozedura abiarazi du.

Gipuzkoako Foru Aldundian prozesu irekia eta partaidetzan oinarritua izatea nahi dugu, Euskal Autonomia Erkidegorako EGEF 2014-2020 Programa Operatibo berriaren sartzeko modukoak diren jarduerak identifikatu eta proposatzeko aldera.

Euskal Autonomia Erkidegorako EGEF 2014-2020 Programa Operatiboan sartzeko proiektu hautagaiak hautatzeko, kontuan hartu behar da EGEFk kofinantzatutako inbertsioak gauzatzea ahalbidetu behar dela programazio-aldi osoan eta hori dela-eta, a priori, proiektuak honako irizpide orokor hauen arabera hautatuko dira: Kontzentrazio tematikoaren printzipioa, Dimentsioa eta hainbat urterako izaera. Hautagaiak hautatzeko, aurrekontuan nolabaiteko pisua eta Gipuzkoako lehentasunak. Gipuzkoako lurraldeko helburuekin eta Europar finantzaketarako zehaztutako Gipuzkoako Foru Aldundiaren lehentasunekin bat datozen eta sustatzen dituzten ekimenak kontutan hartuko dira.

Más información:

http://www4.gipuzkoa.net/ogasuna/fondoseur1/uploads/noticias/2013-12-09%20PO%202014-2020_eusk.pdf



> **Gipuzkoak aurrera jarraitzen du e-Administrazioan espediente elektronikoari eta IKUS sistemari esker**

Estrategia Empresarial aldizkarian (458. alea, 2013ko abenduak 1) argitaratutako artikuluko berriak agerian utzi du Gipuzkoako Foru Aldundiak e-Administrazioaren aldeko apustu irmoa egin duela. Duela hamarkada bat baino gehiagotik, administrazio elektronikoaren garapena etengabea da Gipuzkoako Foru Aldundian. Izan ere, 90eko hamarkadaren amaieran jarri zuen abian lurraldeko Administrazioaren barneko eta kanpoko prozesuen digitalizazioa bultzatzeko *eAdministrazioa* programa. Horren ondoren, eGipuzkoa Plana eta i-gipuzkoa2010 Estrategia iritsi ziren Gipuzkoa informazioaren gizarte arloko lurralde aurreratuenen artean kokatzen laguntzeko foru mailako testuinguru estrategiko gisa. Horri esker, Aldundiak administrazioaren eta gobernu elektronikoaren garapenaren alde egindako konpromisoa baieztatu zen modu esplizituan.

Biztanleriaren bizi-kalitatearen eta lurraldeko lehiakortasunaren eta enpleguaren aldeko foru- eta udal-administrazioko eduki eta zerbitzu digital berriak eta hobeak lortzeko konpromiso hori Euskadiko 2007-2013ko EGEF Programa Operatiboko 1. ardatzeko bi proiektu berri txertatzeko erabakiaren baitan sartu behar dugu. Aipatutako ardatza "Ezagutzaren eta Berrikuntzaren ekonomia, eta enpresa-garapena" da eta "Herritarrentzako zerbitzu eta aplikazioak" izeneko gastu-kategorian dago zehazki.

Informazio gehiago:

http://www4.gipuzkoa.net/ogasuna/fondoseur1/uploads/noticias/EE_2012-01-12.pdf



> **Horizonte 2020 programa aurkeztu dute Euskadin**

Ikerkuntzako, berrikuntzako eta Zientziako Europako komisarioak, Máire Geoghegan-Quinn-ek, azaroaren 12an aurkeztu zuen Euskadin Horizonte 2020 programa, 2014-2020 aldian Europar Batasuneko ikerkuntza eta berrikuntza finantzatzera zuzendutako esparru-programa berria.

70.000 milioi euro baino gehiagoko aurrekontua du programak eta 2014-2020 aldian, Europar Batasunak bere ikerkuntzako eta berrikuntzako jardueren zati handi bat Horizonte 2020 Programan pilatuko du. Horizonte 2020 programa I+G+b arloan egindako enpresa-inbertsioetako emaitzetara egongo da bereziki zuzenduta eta ETE-etara irekita egon nahi du. Horren bidez, erronka sozial nagusiak lantzen, Europan industria mailako lidergoa bultzatzen eta oinarri zientifikoaren bikaintasuna sendotzen lagundu nahi du.

Lehenengo aldiz, Horizonte 2020k fase guztiak barneratzen ditu: ezagutzaren sorkuntzatik hasi eta merkatutik gertuago dauden jarduerak arte: oinarriko ikerkuntza, teknologien garapena, frogaketa-proiektuak, fabrikazioko ildo pilotuak, berrikuntza soziala, teknologiaren transferentzia, kontzeptu-probak, normalizazioa, erosketak publiko aurre-komertzialei laguntza ematea, arrisku-kapitala eta berme-sistema.

Komisarioak Bilbon egindako lan-jardunaldiko aurkezpenean azaldu zuen moduan, Europako laguntza proiektuei emandako diru-laguntzen, industriarako laguntzen eta inbertsioen bidez bideratzea aurrez ikusi dute. Edonola ere, programak aurrekontuaren zati bat ETE-en partaidetzara bideratzeko konpromisoa hartu du.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/research/horizon2020/index_en.cfm



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2013ko Azaroa

KOHESIO-POLITIKA

> Europako Parlamentuak Kohesio Politika berria onartu eta 325.000 milioi jarriko ditu 2014-2020 epealdian

Europako Parlamentuak 2014-2020 aldirako Kohesio Politika berria abian jartzeko esleipenerako arau eta irizpide nagusiak onartu zituen azaroaren 20an, asteazkenean.

Europako Parlamentuak eta Batzordeak adostutako akordioari esker, Europako eskualdeek funtsetan 325.000 milioi euro lortuko dituztela bermatu dute (2014-2020 aldirako Europar Batasuneko aurrekontuaren herena). Akordioak burokrazia murriztea eta funtsak herrialdeen politika makroekonomikoetara bideratzeko irizpidea malgutzea ere jasotzen ditu.

Erreforma horren bidez, Esparru Estrategiko Komuna txertatu da. Aipatutakoak bost funts nagusietarako arau komunak finkatzen ditu: Eskualde Garapeneko Europako Funtsa (EGEF), Europako Gizarte Funtsa (EGIF), Kohesio Funtsa, Landa Garapeneko Nekazaritzako Europako Funtsa eta Itsasoko eta Arrantzako Europako Funtsa.

Kohesio Politika berri horrek biltzen dituen berrikuntzen artean, hau aipa dezakegu: baldintza makroekonomikoko klausula. Horren arabera, kide diren estatuak gehiegizko defizita kontrolatzera behartuta egongo dira.

Informazio gehiago:

http://www.europarl.europa.eu/pdfs/news/expert/infopress/20131118IPR25534/20131118IPR25534_en.pdf

http://ec.europa.eu/regional_policy/thefunds/funding/data/graphics/cohesionpolicy20142020_full_highres.png



> Europako 2015eko Eskualde Ekintzaile titulua eskuratzeko hautagaitzak aurkezteko epea irekita dago


Europako Eskualdeen Batzordeak Europa Eskualde Ekintzailea sariko edizio berria aurkeztu du 2015eko epemugarekin. Sari horrek ekintzailetza arloko etorkizunerako ikuspegi handiena duten Europako hiri eta eskualdeak aitortzen ditu. Ekintzailetza hori Small Business Act for Europe izeneko aplikatzen lagundu duten ekintza zehatzak eta neurgarriak egitearekin eta, neurria, aberastasuna edo eskumenak edozein izanda ere, finantzaketa publikoa behar bezala erabiltzearekin lotuta dago.

Edizio honetako hautagaitzak martxoaren 31ra arte aurkeztu ahal izango dira eta "susperraldia ekintzailetzaren bidez" izango da gai nagusia.

Orain arte, saria hamabi eskualdek jaso dute. 2011: Brandeburgo (Alemania), County Kerry (Irlanda) eta Murtzia (Espainia); 2012: Katalunia (Espainia), Helsinki-Uusimaa (Finlandia) eta Trnava (Eslovakia); 2013: Iparraldea-Calasiko Itsasartea (Frantzia), hegoaldeko Danimarka eta Estiria (Austria); eta 2014: Las Marcas (Italia), Flandria (Belgika) eta iparraldeko Brabante (Herbehereak).

Informazio gehiago:

<http://cor.europa.eu/en/takepart/eer/Pages/eer.aspx>



> Biztanleriaren % 77k aitortu du Eskualdeko Funtsek eragin positiboa dutela

Europako Batzordeak Europar Batasuneko eskualde-politikari buruzko herritarren ezagutza eta pertzepzioaren inguruan argitaratutako azken Eurobarometroaren (384. zenbakia) arabera, Batasuneko eskualdeko inbertsioaren eta, zehazki, eskualdeko kohesio-politikaren eragin positiboaren pertzepzioa hazten ari da oraindik ere. Zehazki, Europako biztanleriaren % 77k aitortu du eskualdeko funtsek eragin positiboa dutela.

Eskualdeko politikaren ezagutza orokorra % 34koa da; hau da, 2010ean egindako antzeko inkesta batekoaren parekoa. Polonia da (% 80) eskualdeko funtsek duten eragin positiboaren ezagutza eta kontzientzia handiena duen herrialdea. Horren ondoren, Lituania eta Txekiar Errepublika azaltzen dira (bakoitza % 67rekin).

Herrialde gehienetan, telebista da eskualdeko politikari eta funts horiekin finantzaturako proiektuei buruzko informazio-iturri nagusia. Aldiz, beste herrialde batzuetan (Alemanian eta Finlandian, adibidez), eskualdeko eta tokiko egunkariak betetzen dute rol nagusi hori. Irlandan eta Hungarian, aldiz, toki publikoetako karteak betetzen dute rol esanguratsu hori. Bestalde, Europako eskualde-politikari buruzko informazioa jasotzeko garaian, 15 eta 24 urte arteko gazteek erabiltzen duten iturri nagusia Internet da.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/public_opinion/archives/flash_arch_390_375_en.htm#384

http://ec.europa.eu/public_opinion/flash/fl_384_fact_es_es.pdf



> Egitura Funtsen erabilerarekin lotutako iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako neurriei buruzko esperientzien trukea egin dute

Europar Batasuneko Eskualde Politikako Zuzendaritza Nagusiak abenduaren 3an egin zuen Europako Egitura eta Inbertsio Funtsen erabilerarekin lotutako iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako neurriei buruzko hitzaldia.

Hitzaldiaren helburua egitura- eta inbertsio-funtsak erabiltzeko garaian geratzen den iruzurrarekin eta ustelkeriarekin lotutako arriskuak identifikatzen eta horien inguruko kontzientzia sortzen lagun dezaketen tresna batzuk aurkeztea izan da.

Hitzaldi horretan, Europako funtsen kudeaketarekin lotutako iruzurra eta ustelkeria arintzeko gomendatutako jardunbideen adibide batzuk eztabaidatu zituzten.

Nazioarteko Gardentasuna erakundeak 2013ko Ustelkeriaren Pertzepzio Indizeko emaitzak argitaratu zituen. Tresna horrek 177 herrialdetako sektore publikoan hautemandako ustelkeria mailak neurtzen ditu.

2013rako Ustelkeriaren Pertzepzio Indizeko emaitzen arabera, Europar Batasuneko kide diren estatuetak datuak nahiko onak dira. Emaitza onenak dituzten herrialdeak honako hauek dira: Danimarka, Finlandia eta Suedia (hurrenkera horretan). Espainia 40. postuan dago.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/conferences/anti_corruption/agenda_en.cfm#wksA

<http://cpi.transparency.org/cpi2013/>



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2013ko Azaroa

> **POCTEFak Frantzia-Espainia-Andorra mugaz gaindiko eskualdeko lurralde mailako diagnostiko estrategikoa balioztatu du**

POCTEFaren (Lankidetzarako Programa Operatiboa) Jarraipen Batzordeak Frantzia-Espainia-Andorra mugaz gaindiko eskualdeko lurralde mailako diagnostiko estrategikoa balioztatu du. Dokumentu horren helburua lurraldeko indar eta ahuleziak zehaztea da 2014-2020ko programazio-aldia prestatzeko asmoz.

Hemendik aurrera, Batzorde horrek Programa Operatiboaren estrategia balioztatu beharko du programaren ezarpeneko eta jarraipeneko gailuen idazketa-lanekin eta finantza-maketa prestatzeko izapidetzeekin aurrera jarraitu ahal izateko. 2014-2020 Programa Operatibo hori eta haren osagaiak eskuduntza duten Europako eta estatu mailako erakundeei bideratuko zaie behin betikoz onar ditzaten.

2012ko ekainaren 20an POCTEFA 2007-2013 Programako Jarraipen Batzordeak Pilotajeko Batzordea eratu zuen eta, ordutik, 2014-2020 aldirako POTCTEFA Programa Operatiboa lantzen ari dira. CTPk (Pirinoetako Lan Elkarte), Kudeaketako Agintari denez POCTEFaren Jarraipen Batzordearen ordezkari moduan, Pilotajeko Batzorde hori koordinatzen du.

Informazio gehiago:

www.poctefa.eu/FCKeditor/UserFiles/File/2013_11_07_seminaire%20coop%20territoriale/Diagnostico%20territorial_%20ES.pdf



EUROPA 2020 ESTRATEGIA

> **Espezializazio Adimentsuari buruzko maila goreneko konferentziaren emaitzak**

Espezializazio Adimentsuko Estrategien (RIS3) helburua Europako eskualde guztiei berrikuntza arloko potentzialari ahalik eta onura handiena ateratzen laguntzea da. Horretarako, baliabideak hazkundera lotutako lehentasun txikien kopuru mugatuan pilatu nahi dituzte. Espezializazio Adimentsuko Estrategia garatzeko betebeharra 2010ean iragarri zuten hazkunderako Europako Estrategia 2020ko "Batasuna berrikuntzan" ekimen enblematikoaren baitan. Batzordeak 2011n ezarri zuen espezializazio adimentsuko plataforma kide diren estatuei eta eskualdeei espezializazio adimentsuko estrategia garatzen laguntzeko. Orain arte, kide diren hamahiru estatutako 140 eskualdek eman dute izena.

Azaroaren 8an, Europako Batzordearen Eskualde Politikako Zuzendaritza Nagusiak eta Flandriako Gobernuak maila goreneko konferentzia egin zuten Espezializazio Adimentsuko Estrategiak gaiaren inguruan. 500 parte-hartzaile baino gehiago izan ziren eta lehia-abantailak hobetzeko eskualde mailako indarrak identifikatzeko, eraikitzeko eta arakatzeko eskualdeek dituzten moduen inguruan hausnarketa egin zuten.

Hizlari guztiek azpimarratu zuten Espezializazio Adimentsuaren balio erantsia ustiatu beharra dagoela eta horrek teorikoa izateari utzi eta bere horretan aldaketarako benetako prozesu bihurtu beharko lukeela. Hizlarien artean, honako hauek bildu ziren: Europako Batzordeko presidentea, Herman Van Rompuy; Hahn komisarioa; Geoghegan-Quinn komisarioa; Kris Peeters, Flandriako ministro-presidentea; eta Danuta Hübner, Europako Parlamentuko kidea eta Europako Parlamentuko Eskualde Garapeneko Batzordeko presidentea.

Era berean, hitzaldian sustapeneko bideo batzuk aurkeztu zituzten enpresa-aurkikuntza azpimarratzeko eta eskualde jakin batzuetako Espezializazio Adimentsuko adibideak erakusteko (tartean, marrazki bizidunen filma).

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/conferences/smart_specialisation/agenda_en.cfm



> **Europa Sortzailea** Programa lehen deialdia kaleratzeaz

Europa Sortzailea Europako Batzardeak azaroaren erdialdean onartu zuen programa da eta Europako kultura eta sormen arloko sektoreak bultzatzera zuzenduta dago. Programa hori Europar Batasunak abian jarri du 2014-2020ko aldirako.

Europa Sortzailea programak 1.400 milioi euro baino gehiagoko aurrekontu orokorra du eta hurrengo zazpi urteotan Europako artisten eta artelanen mugigarritasuna, eta Europako ikus-entzunezko sektorea aro digitalera egokitzeko lanak finantzatuko ditu. Horrez gain, mikroenpresetarako, eta enpresa txiki eta ertainetarako maileguren berme-mekanismoa sortzea aurrez ikusi du hurrengo esparru hauetan: itzulpen literarioak, bideo-jokoak, antzezlanak, zinematografiako koprodukzioak, azpitoluak jartzea eta bikoizketa.

Informazio gehiago:

<http://ec.europa.eu/culture/creative-europe/>



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2013ko Azaroa

DOKUMENTU INTERESGARRIAK

> PISA 2012 txostena (ELGA)

Mundu osoko hamabost urteko ikasleen ezagutzari buruzko ELGAren txostenaren edizio berria da eta matematika, irakurketa eta zientzia gaiak lantzen ditu. Guztira, 65 herrialdetako 510.000 ikasle baino gehiagori egin diete azterketa.

Shanghai (Txina) eta Singapur daude lehen postuetan matematikan. ELGAko herrialde gehienetakoa baino hiru eskolazte-urte gehiagoren baliokidea den puntuazioa lortu dute. Hong Kong (Txina), Taipéi (Txina), Korea, Macao (Txina), Japonia, Liechtenstein, Suitza eta Herbehereak ere emaitza onenak lortu dituzten herrialdeen artean daude.

Irakurketan maila onenak lortu dituzten herrialdeen artean, aldiz, hauek aipa ditzakegu: Shanghai (Txina), Hong Kong(Txina), Japonia eta Singapur.

Shanghai (Txina), Hong Kong (Txina), Singapur, Japonia eta Finlandia dira zientzian emaitza onenak izan dituzten bost herrialdeak.

Europari dagokionez, kide diren estatuen arteko emaitzak desberdinak dira herrialde batetik bestera. Europar Batasunak, oro har, matematikan atzerapen handia jasan du, baina egoera hobea da zientzia eta irakurketa arloetan. Diziplina horietan, Europa 2020rako ezarritako helburua lortzear da; hau da, errendimendu desegokia duten ikasleen ehunekoa % 15etik jaistea.

Informazio gehiago:

<http://www.oecd.org/pisa/keyfindings/pisa-2012-results.htm>

> Europar Batasuneko 2012ko finantza-txostena (Europako Batzordea)

2012. urteari dagokion finantza-txostenak aurrekontu mailako kontusail nagusien xehetasunak, banaketa eta esparruen araberrako gauzatze mailak jasotzen ditu.

Argitaratutako emaitzen arabera, 2012an, Europar Batasuneko aurrekontuak finantzaketa handitu egin zuen hazkunde eta enplegu-sorrera suspertzeko arloetan, eta ikerkuntzako eta berrikuntzako inbertsioan.

Europar Batasuneko 2012ko aurrekontuko 135.600 milioi euroko zenbatekoaren % 94 Europa osoko onuradunei bideratu zitzairen: ikerlariak, ikasleak, enpresa txiki eta ertainak, hiriak eta eskualdeak, eta GKEak.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/budget/financialreport/index_en.html



> Nola aktibatu berriz Europako eskualdeak? (Europarl TV)

Europarl TVk, Europako Parlamentuaren telebista-kateak, iraupen laburreko dokumentala eskaini zuen 2004an Europar Batasuneko kide bihurtu ziren estatuetan EGEFren finantzaketak izan dituen onurak aztertzeko.

Dokumentuaren oinarria galdera hau da: EBko eskualde-politika benetan mesedegarria izan al da herrialde horietarako?

Informazio gehiago:

<http://europartv.europa.eu/es/player.aspx?pid=22ca8a18-a1e7-47b7-bba9-a26200c5a787>

> Europar Batasuneko 2012ko gastu eta diru-sarrerak (Europako Batzordea)

2012ko ekitaldiko gastuak eta diru-sarrerak kontsultatzea ahalbidetzen du aplikazio interaktibo horrek kide diren estatuen eta aurrekontuko kontusail nagusien arabera banatuta.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/budget/figures/interactive/index_en.cfm